



**Expediente nº: 693/2023**

**Notificación a las personas interesadas**

**Procedimiento:** Propuesta de declaración Institucional para el 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia Machista Hacia las Mujeres

### IRAGARKIA

Zigoitiko Udalak, 2023ko azaroaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran, ondorengo adierazpen instituzionala onartzea erabaki zuen:

### **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxista Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, dela eta, Zigoitiko Udalak indarkeria matxistarik gabeko gizartea eraikitzeko duen konpromisoa berretsi nahi dugu. Halaber, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorritik, emakumeen eta gizonen artean desberdintasun-harreman bat dagoela azpimarratu behar dugu, bai eta emakumeen aurkako indarkeria ere, azken hori giza eskubideen urraketatzat hartuta.

Azken urteetan aldaketa handiak izan dira emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. Hala ere, eta aurrerapenak eman badira ere, desberdintasun-egoerak gure gizartean errotuta daude, eta errepikatzen eta betikotzen diren jarrerak izaten dira. Eraso matxistak testuinguru horretan kokatzen dira. Horietako batzuk hain normalizatuak eta egunerokoak direnez, antzematen zailak dira.

Arazo sozial horren benetako garrantzia zifra ofizialetan islatzen ez bada ere, horiei egin behar diegu erreferentzia, herritarrak sensibilizatzeko eta bizi dugun larrialdi-egoera islatzeko. Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako Informazio eta Arreta Zerbitzu Espezializatu Satevik dio gaur arte 1.830 dei jaso dituela genero- eta sexu-indarkeriarekin lotuta, 2022an baino % 10 gehiago. Horrez gain, indarkeria jasaten duten emakume haundunek egindako dei-kopuruak gora egin duela ohartarazi du; zehazki, 230 dei jaso dira guztira.

### ANUNCIO

El Ayuntamiento de Zigoitia, en sesión ordinaria de pleno celebrada el día 20 de noviembre de 2023, acordó aprobar la siguiente declaración institucional:

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA HACIA LAS MUJERES**

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia Machista hacia las Mujeres, queremos reafirmar el compromiso del Ayuntamiento Zigoitia con la construcción de una sociedad libre de violencia machista. Asimismo, en consonancia con el marco jurídico internacional, debemos insistir en la existencia de una relación de desigualdad entre mujeres y hombres, así como la violencia contra las mujeres, entendida esta última como una violación de los derechos humanos.

En los últimos años se han producido importantes cambios en las relaciones que se establecen entre mujeres y hombres. Sin embargo, y a pesar de los avances, las situaciones de desigualdad se mantienen enraizadas en nuestra sociedad con actitudes que se reproducen y perpetúan. En este contexto se enmarcan las agresiones machistas, algunas de ellas tan normalizadas y cotidianas que son difíciles de detectar.

Aunque la magnitud real de este problema social no se refleje en cifras oficiales, debemos hacer referencia a ellas para sensibilizar a la población y reflejar la situación de emergencia que vivimos. Satevi, Servicio Especializado de Información y Atención a mujeres que sufren violencia, afirma haber recibido, hasta la fecha, un total de 1.830 llamadas relacionadas con violencia de género y violencia sexual, un 10% más que en el año 2022. Además, alerta del aumento sobre las llamadas recibidas por parte de mujeres embarazadas que sufren violencia, en concreto, se han registrado un total de 230.





Era berean, ezin dugu ahaztu Euskadin 2003tik 121 emakume hil dituztela, horietatik 4 2023an, eta 11 adingabe. Zifra horiek egoera orokorraren parte txiki bat baino ez dute islatzen, oraindik ere emakume askok ez dutelako arreta-, prebentzio- eta salaketa-baliabideak erabiltzen; beraz, zifrak are handiagoak izan daitezkeela suma dezakegu. Zifrek informazio objektiboa ematen badigute ere, ez dugu ahaztu behar haien atzean emakumeak, familiak, ametsak eta bizitzak daudela, babestu eta lagundu behar ditugunak.

Azken hilketa matxista guztiek kezka handia sortu dute, eta, horregatik, premiazkoa da horiei sakon heltzea. Frogatu da babes-protokoloak ez direla behar bezain eraginkorrak, eta eraginkortasun ezak batzuetan emakume biktimen birbiktimizazioa eragiten du.

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeei zuzendutako mehatxu-tresna indartsua da, indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxu-tresna hori zuzenean erabiltzen da emakumeen kontra, baina baita haien ingurune hurbil eta maiteenaren kontra ere, min handiagoa sortzeko asmoarekin. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa emakumearen aurka erabiltzen den indarkeria da, hirugarren pertsonen bidez kalte psikologikorik handiena eta larriena eragiteko. Indarkeria horren krudelkeria-mailarik handiena pertsona horien homizidioa edo hilketa da (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.). Duela gutxi, landa-eremu batean, Lizarraldean, krimen matxista bat gertatu da, eta indarkeria bikarioa erabili da emakume bati ahalik eta min handiena eragiteko.

Horregatik, oraindik ere erne egon behar dugu genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxiesten duten eta indarkeria horri aurre egiteko dauden tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtso eta jarrerekin.

Planteamendu horiek adingabeen eta emakumeen birbiktimizazioan eragiten dute, haien salaketak susmopean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, haien lekukotza gutxiesten dute eta guraso-ahalaren eskubidea babesten dute emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta errehabilitazioaren gainetik.

Tampoco podemos olvidar que en Euskadi desde el 2003 han sido asesinadas 121 mujeres, 4 de ellas en 2023, y 11 menores. Estas cifras únicamente reflejan una pequeña parte de la situación general, ya que todavía hay un gran número de mujeres que no accede a los recursos de atención, prevención y denuncia, por lo que podemos intuir que las cifras pueden llegar a ser aún más elevadas. Si bien las cifras nos otorgan información objetiva, no debemos olvidar que detrás de ellas hay mujeres, familias, sueños y vidas que debemos proteger y acompañar.

Todos estos últimos asesinatos machistas han creado mucha preocupación y por ello, la urgencia de abordarlos en profundidad. Se ha demostrado que los protocolos de protección no son suficientemente eficaces y esta ineficacia en ocasiones crea la revictimización de las mujeres víctimas.

La violencia contra las mujeres es una potente herramienta de intimidación dirigida hacia las mujeres para que no desafíen ni transformen las normas de género vigentes. Esta herramienta de intimidación se ejerce directamente sobre las mujeres, pero también sobre su entorno más cercano y más querido, como una manera de generar más dolor. Se estima que seis de cada diez mujeres de la CAE que sufren violencia a manos de sus parejas o exparejas, tienen hijas e hijos menores de edad, que se convierten a su vez también en víctimas.

La llamada violencia vicaria es la violencia que se ejerce sobre la mujer con el fin de causarle el mayor y más grave daño psicológico a través de terceras personas y que consigue su grado más elevado de crueldad con el homicidio o asesinato de las mismas (hijos e hijas, madre, padre, pareja actual etc.). Recientemente, en una zona rural, en Lizarraldea, ha tenido lugar un crimen machista. utilizando la violencia vicaria para causar el mayor dolor posible a una mujer.

Por ello, aún resulta necesario ponernos alerta contra los discursos y aquellos posicionamientos que niegan la violencia de género, subestiman el peligro de hijos e hijas en estos casos y cuestionan los instrumentos jurídicos para combatir esta violencia.

Estos planteamientos inciden en la revictimización de menores y mujeres, ponen bajo sospecha sus denuncias, penalizan a las madres, desacreditan su testimonio y preservan el derecho de la patria potestad por encima de la seguridad y recuperación de las mujeres y menores.





Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki erabiltzeko modu horren aurrean, bai eta emakume izateagatik emakumeen gainean kontrola, hertsadura eta kaltea eragiteko dauden modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok aurka egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta oraindik ez direla "gertakari bakanak" eta egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela. Desberdintasun horri ikuspegi feministatik heldu behar zaio, lege-esparru berri baten eta dagozkion baliabide teknikoaren babesarekin.

Egoera horren aurrean, Zigoitiko Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

**LEHENA.-** Emakume biktimei entzutea, prebentzio- eta segurtasun-neurriak diseinatzeko, eta, horretarako, emakumeak babesteko eta laguntzeko balio duten prebentzio-estrategiei balioa ematea.

**BIGARRENA.-** Lankidetzan aritzea eta koordinatzea mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin, indarkeria matxista jasan eta bizirik ateratako emakumeen kolektibo eta elkarteekin.

**HIRUGARRENA.-** Indarkeria matxistaren biktima adingabeak goiz detektatzen eta haiekin esku hartzen laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntzakoak, osasun-arlokoak, etab.), eta adingabeak eta kaltetutako beste pertsona batzuk beren kargura dituzten emakumeen beharrei eta baldintzei erantzutea.

**LAUGARRENA.-** Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazio- eta prebentzio-lanarekin jarraitzea, batez ere gazteenekin, gaztelekuaren, ludotekaren, ikastolaren eta gainerako ikastetxeen bidez.

**BOSGARRENA.-** Indarkeria matxistaren kasuan jarduteko protokoloak berrikustea, eguneratzea eta, beharrezkoa balitz, sortzea, eta indarkeria bikarioa bereziki azpimarratzea, udalerrian gerta daitekeen mota horretako edozein egoerari eraginkortasunez aurre egiteko.

Zigoitiko Udalak dei egiten die herritarrei hilaren 25ean Mugimendu Feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

Ante esta forma de ejercicio sistemático de la violencia contra las mujeres a través de sus hijas e hijos, así como todas las formas de ejercicio del control, coerción y daño sobre las mujeres por el hecho de serlo, las instituciones vascas tenemos la responsabilidad de combatirla teniendo en cuenta que "no son hechos aislados", sino que responden a una situación de desigualdad estructural que requiere abordarla desde una perspectiva feminista respaldada por un nuevo marco legal y los correspondientes recursos técnicos.

Ante esta situación, el Ayuntamiento de Zigoitia se compromete a:

**PRIMERO.-** Escuchar a las mujeres víctimas para diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor estrategias de prevención que sirvan para proteger y apoyar a las mujeres.

**SEGUNDO.-** Cooperar y coordinarse con representantes del movimiento feminista, personas expertas, colectivos y asociaciones de mujeres víctimas supervivientes de la violencia machista.

**TERCERO.-** Contribuir a la detección e intervención temprana con menores víctimas de violencia machista a través de los servicios municipales en colaboración con otros agentes (educativos, sanitarios, etc.) y atender a las necesidades y condiciones que requieren las mujeres con los y las menores a su cargo y otras personas afectadas

**CUARTO.-** Continuar con el trabajo de sensibilización y prevención de violencia machista contra las mujeres, especialmente con la población más joven a través del gazteleku, ludoteka, ikastola y demás centros educativos.

**QUINTO.-** Revisar, actualizar, y si fuera necesario crear los protocolos de actuación en caso de violencia machista haciendo un especial hincapié en la violencia vicaria, para hacer frente de una manera eficaz a cualquier situación de este tipo que se dé en el municipio.

Desde el Ayuntamiento de Zigoitia animamos a la ciudadanía a que participe en las movilizaciones convocadas el día 25 por el Movimiento Feminista.

**SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

